

## **ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK**

Erabiltzeko baldintza eta zehaztapen hauek (aurrerantzean, “baldintzak eta zehaztapenak”) bideo-opariaren funtzionalitatea (aurrerantzean, “bideo-opariaren funtzionalitatea”) atzitzeko eta erabiltzeko arauak zehazten dituzte.

ZARA ESPAÑA SA (aurrerantzean, “ZARA”) Espainiako enpresa bat da, eta Avenida de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixon (A Coruña) du egoitza soziala; ZARA aplikazio mugikorraren (aurrerantzean, “aplikazioa”) kontsumitzaile eta erabiltzaileei aukera ematen die erosketa-prozesuan bideo-opari bat gehitzeko ondoren aipatzen diren herrialdeetan.

### **1. Baldintzak eta zehaztapenak, eta haiek onartzea**

1.1 Opari-bideoaren funtzionalitatea atzitzeko eta erabiltzeko erantzukizuna kontsumitzailearena eta erabiltzailearena da (aurrerantzean, “erabiltzaile(k)”), baldintza eta zehaztapen hauetan aurreikusitako moduan.

1.2 Bideo-opariaren funtzionalitatea erabiltzeko, baldintza eta zehaztapen hauek bete behar dira. Bideo-opariaren funtzionalitatea erabili aurretik, erabiltzaileak baldintza eta zehaztapen hauek irakurri eta onartu beharko ditu. Erabiltzailea ez badago ados baldintza eta zehaztapenekin, mesedez eskatzen diogu ez dezala erabili bideo-opariaren funtzionaltasuna.

1.3 Bideo-opariaren funtzionalitatea herrialde hauetan bizi diren erabiltzaileentzat erreserbatuta dago: Albania, Alemania, Andorra, Austria, Bosnia, Bulgaria, Hego Korea, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Herbehereak, Hungaria, Irlanda, Italia, Japonia, Kosovo, Letonia, Lituania, Luxemburg, Mazedonia, Malta, Monako, Montenegro, Norvegia, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Serbia, Suedia, Suitza eta Ukraina.

### **2. Bideo-opari funtzionalitatearen funtzionamendua**

2.1 Bideo-opariaren funtzionaltasunari esker, aplikazioaren bidez eskaera bat egin duten erabiltzaileek (“www.zara.com webgunearen erabilera- eta erosketa-baldintzen” mende daude, zeinak eskuragarri baitaude aplikazioan espresuki onartu baitituzte aurretik) erosketa-

prozesuan bideo pertsonalizatu bat gehi dezakete, eskaera bati zorion mezua jartzeko (aplikazioan “opari-tiketa” aukera dagoen atal berean dago).

2.2 Erabiltzaileek aplikazioaren bidez eskaera bat egiten duten unean soilik erabili ahal izango dute bideo-opariaren funtzionalitatea.

2.3 Erabiltzaileak aurretik harpidetu edo erregistratu behar du bideo-opariaren funtzionalitatea atzitu eta erabiltzeko.

2.4 Bideoa gehitzean, ZARAK eskaera egin duen erabiltzaileari (“eroslea”) eskatuko dio produktuaren eta zorion bideoaren jasotzailearen telefono-zenbakia; zenbaki hori aktibazio-kode gisa erabiliko da, bideo-opariaren hartzaileak (“onuraduna”) bakarrik ikus dezan.

2.5 Eskaera-kutxan QR kodea duen txartel bat erantsiko da; kode horren bidez onuradunak bideoa ikusi ahal izango du.

2.6 QR kodea eskaneatzen duenean, bere telefono-zenbakiaren azken lau (4) digituak eskatuko zaizkio onuradunari (beraz, bat etorri behar dute erosleak emandako telefono-zenbakiarekin); sartutako zenbakiak zuzenak badira eta, beraz, harreman segurua ezarri bada, onuradunak sartu eta bideoa ikusi ahal izango du.

2.7 Horretaz gainera, onuradunak bideoa ikusi duenean, push mezu bat iritsiko zaio erosleari, ikusi duela jakinarazteko.

2.8 Erosleak aurrez erantsitako bideoa ezabatu nahi badu, ZARAREN bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin jarri beharko du harremanetan.

2.9 Erosleak bideoa gehitu eta bi (2) hilabetera ezabatuko da, edo onuradunak ikusi eta bi (2) egunera –lehenbizi gertatzen dena–.

### **3. Adin-nagusitasuna**

18 urtetik gorakoek atzitu eta erabil dezakete bideo-opariaren funtzionalitatea. Honako zehaztapen eta baldintza hauek onartzean, erabiltzaileak aitortzen du 18 urte baino gehiago dituela, eta adierazpen horren ardura osoa hartzen du.

#### **4. Bideo-opariaren funtzionalitatea behar bezala erabiltzea eta erabiltzeko mugapenak**

4.1. Erabiltzaileak onartzen du indarrean dagoen lege aplikagarriaren arabera erabiliko duela bideo-opariaren funtzionalitatea, zehaztapen eta baldintza hauei jarraikiz, eta gizalegeko ohituren eta ordena publikoaren arabera. Halaber, erabiltzaileak onartzen du bideo-opariaren funtzionalitatea ez duela erabiliko legez kontrako xede edo ondorioekin, ez eta baldintza eta zehaztapen hauen edukiaren kontrako ondorioekin ere, hirugarrenen interes edo eskubideei kalte egiten badie, edo, edozein modutan, bideo-opariaren funtzionalitatea edo aplikazioa, edukiak edo zerbitzuak kaltetu, deserabili, erabilera mugatu edo hondatzen baditu, edo beste erabiltzaile batzuek hura normal erabili ezin badute.

4.2 Bideo-opariaren funtzionalitateari esker, erabiltzaileek bideoak egin ditzakete aplikazioan dagoen atalaren bidez. Erabiltzaileak bermatzen du: (i) edukiek ez dutela erakusten erabiltzailea ez den beste hirugarrenen irudirik, hirugarren horren/horien baimenik gabe; (ii) edukiek ez dutela adingabeen irudirik erakusten edo erreproduzitzen, eduki horiek adingabearen aitak, amak, tutoreak edo legezko ordezkariak aurkezten dituztenean izan ezik; (iii) edukiek ez dituztela urratzen hirugarrenen eskubideak (adibidez, jabetza intelektualeko eskubideak, jabetza industrialeko eskubideak, norberaren irudirako edo intimitaterako eskubidea, edo beste edozein eskubide) edo interesak, ez eta ezein estandar edo araudi aplikagarri ere (nazioartekoa, espainiarra edo beste edozein); (iv) edukiek ez dutela iraingarritzat edo diskriminatzailetzat jo daitekeen elementurik (dela arraza, erlijioa, generoa, sexu-joera, afiliazio politiko edo sindikala direla-eta), edo legez kanpokoa, mehatxuzkoa, kalumnioso, difamatzailea, lizuna, pornografikoa edo bereizlea den elementurik, edo hirugarrenetik, Inditex Taldeko edozein markarekiko edo Inditex Taldearekiko desegokia den beste edonolako elementurik.

4.3 Orobat, erabiltzaileak zinez hitzematen du ez dituela suntsituko, aldatuko edo baliogabetuko bideo-opariaren funtzionalitatean edo aplikazioan dauden datuak, programak edo dokumentu elektronikoak, eta ez diela kalterik eragingo horiei.

4.4 Erabiltzaileak ZARAREN eta/edo eragindako hirugarrenen aurrean izango du erantzukizuna, aurrez ezarritako baldintzak eta bermeak betetzen ez baditu.

## **5. Berme-mugak eta erantzukizunak**

5.1 Erabiltzaileak berriaz onartzen du bideo-opariaren funtzionalitatea bere kontura eta erantzukizunpean erabiltzen duela.

5.2 ZARAK ez du erantzukizunik izango, legeak halaxe ezartzen duenean izan ezik, erabiltzaileek sortutako, argitaratutako, emandako eta/edo eskura jarritako edukiek izan ditzaketen edo sor ditzaketen irregulartasunen gainean; erabiltzaileen gailu mugikorretan ostatatuta gera daitezkeen edukien xedearen gainean; ez eta aplikazioaren dagokion atalean edukia sartzeak eragin ditzakeen kalteen gainean ere. ZARA ez da erabiltzaileek bidalitako edukien erantzule izango, erabiltzaileek ez badakite biltegiatutako informazioa legez kontrakoa dela, edo ez badakite informazio horrek hirugarren baten aldeko kalte-ordainak eragin ditzaketen ondasun edo eskubideei kalte egiten diela. ZARAK lehen aipatutako datuak biltzen dituela jakin bezain laster, konpromisoa hartzen du arretaz jarduteko datu horiek berehala kentzeko edo horiek atzietan ipintzeko.

5.3 Erabiltzaileak onartzen du bideo-opariaren funtzionalitatearen bidez egin daitezkeen bideoak beste erabiltzaile batzuen gailu mugikorretan gera daitezkeela, eta beste erabiltzaile horiek eduki horiekin terminaletik dagozkien ekintzak egin ditzaketela. Erabiltzaileak onartzen du ZARAK ez duela zerikusirik prozesu horrekin, eta erabiltzaileak ez dio leporatuko horri buruz berak edo beste edozein hirugarrenek aurkezten duen erreklamaziorik.

5.4. ZARAK ahaleginak egingo ditu bideo-opariaren funtzionalitatearen kalitatea bermatzeko eta bideo-opariaren funtzionalitatearen edukietan eta funtzionamenduan akatsik egon ez dadin. Edozelan ere, ZARA salbuetsita egongo da bideo-opariaren funtzionalitatearen edukietan ager litezkeen akatsen ondoriozko erantzukizun guztietatik, bai eta bere asmoekin bat ez datozen funtzionamendu-arazoetatik ere.

5.5 ZARAK berea du bideo-opariaren funtzionalitatea eteteko eskubidea, konponketa teknikoak egiteko eta ekipoa mantentzeko, bai eta aplikazioa hobetzeko ere.

5.6 ZARAK eskubidea du Bideo Oparia Funtzionalitatea modu desegokian erabiltzen duten erabiltzaileak blokeatzeko eta/edo kanporatzeko, bai eta legez kanpoko edukia blokeatzeko edo eskuraezinak egiteko ere, baldin eta hirugarrenen ondasun, interes edo eskubideei kalte egiten badiete edo, edozein modutan, baldintza eta zehaztapen hauetan xedatutakoaren kontrakoak badira. Baldintza eta zehaztapen hauetan edo aplikagarri den beste edozein arauditan ezarritakoa ez betetzeak ahalmena emango dio ZARARI egoki iritzitako zuzenketa-

eta/edo zehapen-neurriak ezartzeko, aplikatzekoak diren legezko edo ohiko xedapenekin bat etorritz. Blokeatu edukiak.

5.7 ZARAK ez du inongo ardurarik hartuko komunikazio-sare elektronikoak gaizki funtzionatzeagatik eta, hartara, bideo-opariaren funtzionalitatea behar bezala ez ibiltzeagatik, baldin eta ZARArekin zerikusirik ez duten kausen eta, batez ere, fede txarreko kanpoko ekintzen ondorio badira.

5.8 Horrez gain, ZARA ez da erantzule izango datuak transmititzeko zailtasunak egoteagatik edo datuak galtzeagatik, baldin eta arazook berari egotzi ezin bazaizkio.

5.9 Nolanahi ere, bermaturik daude indarreko legeek erabiltzaileei ematen dizkieten eskubide guztiak.

5.10 Aplikazioaren eta bideo-opariaren funtzionalitatearen bidez sortzen, biltegitzen eta/edo transmititzen den edukia ZARAK ez du egiaztatzen, berrikusteko edo moderatzeko legezko obligaziorik. Halere, ZARAK jakiten badu legez kanpoko edukiak ostatatzen ari dela edo horiek erabiltzaileek eskura jarritako hirugarrenen ondasunak, interesak edo eskubideak kaltetzen dituztela, konpromisoa hartzen du arduraz jokatzeko, horiek kentzeko edo haietara sartzea ezinezkoa egiteko.

Ez du gainbegiratzeko obligaziorik, baina zerbait bidegabea edo desegokia dela antzemanaz gero, eskuraezina egingo du.

## **6. Jabetza intelektual eta industrial**

Aplikazioaren eta bideo-opariaren funtzionalitatearen bidez sortutako bideoak ZARAREN ekipoetan edo hirugarrenetan gordeko dira, funtzionamendua bermatzeko. Bideo horiek grabatu eta bi (2) hilabetera ezabatuko dira, edo onuradunak ikusi eta bi (2) egunera, lehenago gertatzen dena. Horretarako, bideoa egiten duen pertsonak mundu mailan erreproduzitu eta biltegitatzeko behar diren lizentziak ematen ditu, hemen aurreikusitako moduan eta hedapenarekin.

## **7. “www.zara.com webgunearen erabilera- eta erosketa-baldintzekiko” harremana**

“www.zara.com ataria erabiltzeko eta bertan erosteko baldintzak” izango dira arau eta baldintza hauetan espresuki araututa ez dagoen guztian, bai eta bideo-oparia funtzionaltasunari aplikatzekoa den guztian ere.

## **8. Jurisdikzioa eta lege aplikagarriak**

ZARAREN eta erabiltzailearen artean zehaztapan eta baldintza hauek ulertzeari, betetzeari eta horien baliozkotasunari buruz sortzen diren auzi guztiak kasuan kasuko klausulen arabera arautuko dira; aipatutako klausuletan ezarrita ez dagoena, berriz, Espainiako legediaren arabera arautuko da, eta erabiltzailearen bizitokiko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo dira alderdiak."